

2020KO IRAILAREN 15EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO UZTAILAREN 14KO BILKURAREN AKTA). .

2.- IGOGAILUEN MANTENIMENDU ZERBITZUA LUZATZEA. GIPUZKOAKO KONTRATAZIOEN ZENTRALA.

3.- GOIEKI. KAPITAL ZABALKUNTZAREN PROPOSAMENARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- ZEGAMAKO LANDA IZAERAKO UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN ZUZENKETA ETA EGUNERAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

5.- “ZIURTAPEN ETA ZERBITZU EMPRESA –EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE S.A. SOZETATEAREKIN”, LANKIDETZA-AKORDIOA SINATZEA, IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA ELEKTRONIKOARI BURUZKO ZERBITZUAK EGITEKO.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

7.- GALDE-ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO UZTAILAREN 14KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2020ko uztailaren 14ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- IGOGAILUEN MANTENIMENDU ZERBITZUA LUZATZEA. GIPUZKOAKO KONTRATAZIOEN ZENTRALA.

Zegamako Udalbatzarrak, 2011ko martxoaren 16an egin zuen bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralera atxikitzeke erabakia hartu zuen.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak 2017ko abuztuaren 29an emandako foru aginduaren bitartez, Orona S.Coop., I.F.Z. F20025318 enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez jasogailuen mantentze-zerbitzua kontratatzeke esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Horrenbestez, Zegamako Udalak, Toki Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 18an egin zuen bilkuran, hau erabaki zuen: Esleitzea Orona S.Coop., I.F.Z. F20025318 enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez jasogailuen mantentze-zerbitzua kontratatzeke esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabakitzen den baldintzetan.

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralean, adierazitako esparru akordioaren eta kontratu eratorriaren bigarren luzapenaren txostena eman da, aipatutako esparru akordioaren luzapena sinatzea proposatuz.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez jasogailuen mantentze-zerbitzua kontratatzeke esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X15019), Orona S.Coop., I.F.Z. F20025318 enpresarekin adostutakoa, urtebetez luzatzea, erabaki ziren baldintzetan.

Bigarrena.- Erabaki hau, behin-betikoa bihurtuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuak luzapenaren erabakia ebatzen duen egunetik aurrera.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

3.- GOIEKI. KAPITAL ZABALKUNTZAREN PROPOSAMENARI BURUZKO ERABAKIA.

AURREKARIAK

Iker Galparsorok «Goierriko ekimena S.A» den sozietate publikoaren zuzendari orokorrak

sozietatearen kapitalaren zabalkuntzaren beharrari buruzko idatzia aurkeztu du, laburbilduta honakoa dioena:

Goiekiko kontuak Beasaingo udalean kontsolidatzen direnez, hainbat eragozpeni aurre egin behar izaten dio, Goiekik hitzartu behar izan duen azken maileguak eragindakoa adibidez, zeinen ondorioz, Beasaingo udalak plan ekonomiko finantzario bat egin behar izan duen 2020-2021 urteetarako.

Egoera honi irtenbide bat emateko bi proposamen aztertu dira: kapital zabalkuntza bat egitea, aipatu mailegua amortizatzeko hain zuzen ere, edo/eta mankomunitate izaera eman eta berau sortzeko bideari ekitea.»

Goieki, S.A.ko Administrazio Kontseiluak, udal guztiekin adostu ondoren, erabaki du Kapital zabalkuntzari berehala ekitea eta aldi bere mankomunitate izaerara egokitzeko azterketakin jarraitzea.

Osoko Bilkurak du eskumena Goierriko ekimena S.A. den sozietate publikoaren capital zabalkuntza eta ondare-ekarpenak onartzeko, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 b) eta f) artikulua xedatutakoari jarraituz.

Gaiaren azterketa

Aurrekariak

Zegamako Udalak onartua du «Goierriko ekimena S.A.» sortzea eta erabaki horren bidez, hainbat zerbitzu kudeatzeko ardura eman dio sozietate publikoari, eta sozietate hori ezaugarri jakin batzuekin eratu zen, besteak beste, kapital-osaerarekin.

Estatutuen 2.artikuluaren arabera, sozietate publikoaren xedea da, besteak beste,« Goierri eta berau osatzen duten udalerririk sustatzeko interesgarriak diren jarduerak egitea; enpresa-, turismo-, negozio-, ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak»

Zegamako Udalak ez du aurreko ekitaldian plan ekonomiko-finantzariorik edo doikuntza-planik onartzeko betebeharririk izan; beraz, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian eta apirilaren 7/2016 Legeak 95. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ondare-ekarpenak egin eta sozietate instrumentalen kapitalen zabalkuntza edo ondarezko ekarpenak egitea onartu ahal ditu.

Kontabilitatea: Kapitala inbertitzen den erakundea administrazio publiko gisa sektorizatuta dago; hortaz, euroko ondare ekarpen hori kapital-transferentzia gisa hartuko da.

ERABAKI PROPOSAMENA

Lehenengoa. Goierriko ekimena S.A » sozietate baltzuari kapital gehikuntza hauek egitea: 2.854,75 € udalak sozietatearen aurka duen kredituaren kargura eta 33.115,10 euroko eskudiruko kapital sozialaren ondare ekarpena egitea onartzea.

Bigarrena. 33.115,10 euroko ordainketa egitea. Ordainketa hau gauzatu ahal izateko, beharrezkoa den Kreditu Aldaketa bideratuko da (jakinarazitakoaren arabera, Goieki-ri gehikuntza osoaren % 50 ordaintzeko azken eguna 2020ko abenduaren 31 izango da, eta gainerako % 50^a 2021eko uztailaren 31 baino lehen egitea komeni da.)

Hirugarrena. Goierriko ekimena S.A sozietate baltzuari jakinaraztea eta enpresa-sektore publikoaren egitura berrikustea eskatzea, mendeko merkataritza-sozietateen finantza-orekaren kontrola bermatu ahal izateko.

Batzordeak, ahobatezko adostasunez, erabaki proposamen hau aldeko diktaminatu du joan den irailaren 8an egindako saioan.

Osoko Batzarrak, ahobatezko adostasunez erabaki proposamena onartutzat ematen du.

2.- Ateak ireki ekimenaren diru-laguntza eskaera.

Era berean, Goieikitik, Ateak Ireki 2020 egitasmoa jakinarazten da.

Egitasmoaren funtsa eta helburuak ezaguturik, Zegamako Udalaren ekarpena 2020rako 344,93 eurokoa izango dela jakinarazten da.

Egitasmoa eta ekarpen proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, ahobatez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako ekarpena onartzea, eta dagokion gastua bideratzea (hori Goieki-ren kontu korrontean sartzeko, eta Goieki-k Ateak Ireki-ri ordainduko dio jasotakoa).

Bigarrena.- Ordainketa hau gauzatu ahal izateko, beharrezkoa den Kreditu Aldaketa bideratuko da.

4.- ZEGAMAKO LANDA IZAERAKO UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN ZUZENKETA ETA EGUNERAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

Zegamako Udalak, landa izaerako Udal Ondasunen Inbentarioa bideratu zuen.

Burutuako lanaren onarpena, zuzenketa eta eguneraketa batzuen eraginez bideratu gabe geratu zen.

Zentzu horretan, Udalbatzarrak, 2020ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Zegamako landa izaerako udal ondasunen inbentarioaren zuzenketa eta eguneraketa hasiera batez onartzea erabaki zuen. Onarpena, lau hilabetez jendaurrean jartzea adostu ondoren, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2020ko martxoaren 16an.

Epealdi horretan COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, kontsulta epealdi hori etenda geratu zen.

Une honetan, Alkateak proposatzen du adierazitako agiria berriz ere jendaurrean jartzea, eta horrenbestez, alegazioak aurkezteko, lau hilabeteke beste epealdi bat jartzea proposatzen da.

Landa ondasunen inbentarioa honako agiriak osatzen dute (II. Tomoa, 1C landa lursailak; III. Tomoa, 3 landa bideak; IV Tomoa, 3 landa bideak; V Tomoa 3 landa bideak, 4 ur-bilketak 5 beste eskubideak).

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldetik etorritako bi zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, honako hau erabakitzen du:

Lehendabizi: Zegamako landa izaerako udal ondasunen inbentarioaren zuzenketa eta eguneraketa hasiera batez (bigarren aldiz) onartzea (II. Tomoa, 1C landa lursailak; III. Tomoa, 3 landa bideak; IV Tomoa, 3 landa bideak; V Tomoa 3 landa bideak, 4 ur-bilketak 5 beste eskubideak).

Bigarrena: Eguneratze hori, berriz ere jendaurrean jartzea lau hilabetez, dagokion iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hirugarrena: Erabakia behin betiko onartutzat joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epeldiaren barruan.

5.- “ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA –EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE S.A. SOZietatearekin”, LANKIDETZA-AKORDIOA SINATZEA, IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA ELEKTRONIKOARI BURUZKO ZERBITZUAK EGITEKO.

Idazkariak, Alkateak uztailaren 30ean hartutako erabakiaren berri ematen du:

“Espedientea ikusirik.

Zegamako Udalak, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, administrazio elektronikoaren ezarpena bideratzeko pausuak eman behar ditu.

Ondorio horietarako, zutabeetako bat prozeduran interesdun direnek erabili ditzaketen identifikazio eta sinadura sistemak zehaztea da.

Helburu horrekin, “Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa –empresa de certificación y servicios Izenpe S.A. sozietatearekin”, lankidetzak akordioa bideratu da, identifikazio eta sinadura elektronikoari buruzko zerbitzuak egiteko.

Akordio honen xedea da lizenperen eta Zegamako Udalaren arteko lankidetzak esparrua ezartzea. Horren bidez, Zegamako Udalak lizenperen erregistro-erakunde gisa jardungo du, identifikazio- eta sinadura-bitartekoak emateko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduak, barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantza-zerbitzuei buruzkoak, zehaztutako irizpideetan oinarrituta. 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen dela, konfiantzazko zerbitzuetarako

Horrenbestez, eta indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau erabakitzen dut:

Lehena.- “Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa –empresa de certificación y servicios Izenpe S.A. sozietatearekin”, lankidetzakordioa sinatzea, identifikazio eta sinadura elektronikoari buruzko zerbitzuak egiteko.

Bigarrena.- Ebazpen hau, “Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa –empresa de certificación y servicios Izenpe S.A. sozietateari” jakinaraztea.

Hirugarrena.- Udalbatzarrak egingo duen hurrengo bilkuran erabakia berrestea.”

Udalbatzarrak, hitzarmenaren xedea eta klausulak ikusirik, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldetik etorritako bi zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, adieraztiako ebazpena berrestea adosten du.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 07/0520 erabakia, maiatzaren 28koa, 17 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza 2) onartuz, guztira 28.837,20 eurokoa.
- 08/0520 erabakia, maiatzaren 29koa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 09/0520 erabakia, maiatzaren 29koa, ezkontza baimentzeko ahalmena eskuordetuz.
- 010/0520 erabakia, maiatzaren 29koa, egutegi fiskala aldatuz eta beste zerga-neurri batzuk onartuz.
- 01/0620 erabakia, ekainaren 4koa, 18 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina) onartuz, guztira 22.879,10 eurokoa.
- 02/0620 erabakia, ekainaren 4koa, COVID-19a dela eta udal zerbitzuen irekierari buruzkoa.
- 03/0620 erabakia, ekainaren 10ekoa, Gure Esku Dago ekimenaren bilera eskaerari buruzkoa.
- 04/0620 erabakia, ekainaren 16koa, arma txartela bideratzeari buruzkoa.
- 05/0620 erabakia, ekainaren 16koa, 19 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina) onartuz, guztira 23.483,00 eurokoa.
- 06/0620 erabakia, ekainaren 16koa, udaleku irekietan hezitazile lanak bideratzeko hautagaien zerrenda onartuz.
- 07/0620 erabakia, ekainaren 16koa, lursailak bereizteko baimena emanaz.
- 08/0620 erabakia, ekainaren 17koa, Foru Aldundiko Ondasun Landatarren ataletik jakinarazitakoaren arabera, Olanan 10 etxearen ondoan dagoen sailarekiko erreklamazioa onartuz.

- 09/0620 erabakia, ekainaren 22koa, udaleku irekien hezitzaile hautatuen zerrenda onartuz.
- 010/0620 erabakia, ekainaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 011/0620 erabakia, ekainaren 23koa, bereiztea bideratzeko baimena emanaz.
- 012/0620 erabakia, ekainaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 013/0620 erabakia, ekainaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 014/0620 erabakia, ekainaren 23koa, Ostatuko fatxadan toldo bat jartzeko eskaerari buruzkoa.
- 015/0620 erabakia, ekainaren 24koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 016/0620 erabakia, ekainaren 26koa, Elizalde 1 etxe azpiko ur zikinen hodia aldatzeko eskaerari buruzkoa.
- 017/0620 erabakia, ekainaren 26koa, Otzaurteko Bentan lanak bideratzeko eskaerari buruzkoa.
- 018/0620 erabakia, ekainaren 29koa, 21 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 3) onartuz, guztira 42.587,45 eurokoa.
- 01/0720 erabakia, uztailaren 8koa, 22 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila) onartuz, guztira 15.687,37 eurokoa.
- 02/0720 erabakia, uztailaren 8koa, Olan 5 etxeko jabeakideak pertsiarik kentzeko aurkeztutako proposamena onartuz.

7.- GALDE-ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), egoera honen aurrean, ikastaroak nola gelditu diren galdetzen du. Alkateak azaltzen du aurreko astelehenean bilera bat deitu zela hau aztertzeko. Azaltzen du, Eusko Jaurlaritzak eskolari gomendioa eman diola, eraikinean eskolaz-kanpoko ekintzarik ez emateko. Eskolak erabaki du ekintza horiek eraikinetik ateratzea. Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen), honi buruzko azalpenak ematen ditu ere, beste herri batzuetan bideratutakoa azalduz, eta gomendioa baino, agindutzat hartu dela. Alkateak, bilerara joan ziren eragileak azaltzen ditu eta bileran eztabaidatutakoa. Zaintzari dagokionez, Guraso Elkarteari ludotekako lokala erabiltzeko aukera eman zitzaio, eta adostasuna adierazi zen. Bestalde, Musika Eskolarekin ikusten zen kultur-etxea zela egokiena (liburutegia, gazte ekintzak eta ikastaroak mantenduz). Musika eskolatik adostasuna adierazi zen. Dantza ere ludotekara bideratzea iritzi zen, eta korua ere ludotekan entseguak bideratzea adostu zen. Ondoren, ikastaroen gaia eztabaidatu zen. Apaiz etxean egiten direnak, bertan mantentzea adostu zen. Inaxik, kezka azaldu ondoren, urtarrilera arte margo ikastarorik ez direla bideratuko adostu zen. Itziarren marrazketa ikastaroekin, eguerdian ezin direla emango irizten dela

azaltzen du Izaskunek, eta agian, urtarrilean hasteko aukera aztertuko dela. Itakunen euskara ikastaroak, apaiz etxean egingo direla azaltzen da. Bertso eskolari dagokionez, beharren arabera, lokalen bat bideratuko dela adierazten du Alkateak. Bestalde, lokalei garbitasuna egunean behin emango zaiela azaltzen du Alkateak. Eskolako gimnasioari dagokionez, bilera bat egiteko erabili ahal izango dela azaltzen da, kontzertuak eta modu horretako ekitaldirik bideratzeko ordea ez. Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen), emandako gomendioekin nolabaiteko kontraesanak eman direla irizten du, eta eguerditan eskolaz kanpoko ekintzetara irtetzeko gaiarekin ere sortutako eztabaidaz hitz egiten da, eguerditako baimenen aukera hori kentzeko gomendioa eman dela azalduz. Honen ildotik, jangelaren erabileraz hitz egiten dute bilkurakideak, egoera honetan, jangelan gelditzeko benetako behar bat egotea gomendioa izanik. Azkenik, musika-eskola kultur etxean dagoen bitartean, bestelako erabilpenetarako gelak erabiltzeko aukeraz hitz egiten da. Bestalde, Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), kirol ikastaroei buruz galdetzen du. Alkateak esaten du, hasiera batean mantendu egingo direla, horiek emateko modua egonez gero. Elkorok ematen dituen ikastaroak, bitan emateko proposamena eman zen. Moyuak eskaintzen dituen ikastaroetan aforo arazorik ez dagoela esaten da.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Kaba festa eta San Martin egunari buruz galdetzen du. Alkateak esaten du, gaur egun horiek burutzea ez dela ikusten. San Martinetan zerbañ antolatzea posible izan daitekeela adierazten da. Imanolek, palmaresa mantentzeko artzaiena mantenduko lukeela esaten du. Animaliak jartzeko aukeraz eztabaidatzen da. Gaia argi ez dagoenez, hurrengo egunetan honi buruz ematen diren erabaki eta aginduen arabera zer egin aztertuko dela esaten da.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), eguneko zentroko langileen egoeraz galdetzen du. Alkateak, GSR enpresako arduradunarekin hitz egindakoa azaltzen du. Zentzu honetan langileekin arazoa aztertuko zutela esan zitzaion. Pasa den astetik, beste berririk ez duela jaso esaten du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) Apotako postuak bota zirela eta, egoeraz galdetzen du. Alkateak esaten du postuen ezaugarriak ikusirik, ahalegin berezia egin dela zortzi postu konponduz (bederatzigarrena –Zegamari esleitutakoa- ehiztariak konpondu dute Partzuergoak materiala jarritz). Konponketa kostu osoa, gutxi gorabehera 40.000,00 euro izan direla azaltzen da. Añabaso 6 ere Karraztarro elkarteak konponduko dela adierazten da, udalak materiala jarritz (5.000,00 euro inguru). Ostiral honetan ehiztariekin bilera egingo dela esaten da, eta zozketaren azalpenak ematen ditu alkateak. Azkenik denboraldiko txabolak egiten utziko zaiela esaten du.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO